

GAIAK ETA TESTUINGURUAREN AURKEZPENA

SUJET ET POSE DU CONTEXTE

1. Beste besta eredu bat // Un autre modèle de fête est possible

[EUSKARAZ]

Euskal Herrian beste tokietan bezala besta eredu asko aldatu da azken 20 urteetan.

Zentzuz beteriko erritual kodifikatu tradizioaletatik besta ezin kontrolatu batera pasa gira, besta soilik libratzeko modu bat bilakatu delarik. Anartean, kultura alternatiboak, bestak irudikatzen duen askatasun eta subertsio gunea berreskuratu du, espazio hau eskabide eta eraikuntza momentu bat bilakarazteko helburuarekin.

Ilido hortarik eta ideei hori segituz, gaia landuko duenari, EHZk zer eragin duen besta praktika aldaketan ikertzea proposatua zaio :

- Dataren hautua: Eskaintza alternatibo bat Hazparneko feriaren parean (ik. Sortze testuingurua 1996an)
- Murgiltzearen garrantzia 3 eguneko formatu batean
- Praktika etikoak (bazterte forma guzien ukatzea, no logo, eko-erantzunkizuna, gogoeta guneen antolaketa...)
- Modelo hortan aurki daitezken mugak (off gunerik ez, autoegokitze azkarra...)
- Ipar Euskal Herriko Kantaldi kultura eta rock kontzertu aldarrikatzaileen arteko transizioa

[FR]

Au Pays Basque comme ailleurs, le modèle de la fête a beaucoup évolué ces deux dernières décennies. On est passé de rites traditionnels codifiés pleins de sens à une fête encadrée devenue défouloir.

Entre temps, la culture alternative aussi s'est approprié cet espace de liberté et de subversion que représente la fête, pour en faire un moment de revendication et de construction.

En suivant cette idée, il est proposé au candidat d'explorer l'impact d'EHZ dans les changements de pratiques de la fête :

- *Choix de la date : l'offre alternative aux férias de Hazparne (cf. contexte de création en 1996),*
- *L'importance de l'immersion avec un format de 3 jours,*
- *Les pratiques éthiques (refus de toutes formes d'exclusions, no logo, éco responsabilité, aménagement de moments de réflexion...)*
- *Les limites observées (pas d'espaces pour le off, autorégulation forte...).*
- *La transition entre la culture des Kantaldi et des concerts rock revendicatifs.*

2. EHZ lurraldeari lotua... Baina zein ? // Un festival ancré dans son/ses territoire(s)

Udako festibal bat bere kokagune, ingurumen eta festibalariari eskainiko eremuaren arabera definitzen da. Baina sortutako dinamika lurralde batean integratzen da, bere politika kultural eta publikoa konduhan hartuz.

EHZrentzat ere, lurraldeari loturiko galdezketak zentrala eta aldi berean zeharkakoa da : lurraldearen hautua, zein eremu geografiko konduhan hartu, eskuragarritasuna... hainbat galdera sutsu lurraldeari buruzko gogoeta hain bizirik den eremu batean (kostalde/barnekalde haustura, ezagupen instituzionala, muga psikologikoa eta 'eraikuntza nazionala' ren estrategia...).

Tokiak sorturiko gogoetak aipa daitezke (Arrosaren lilura, Idauze Mendiren apustua, Heletaren formula...), baita ere harremanak biztanleekin, festibalarien mugikortasuna, gertakari baten hautua baserrialdeko ingurune batean. Garaiaren testuingurua ere nabarmentzekoa da: barnekalde eta kostaldeko euskal gazteria konektatu beharra, Gipuzkoa, Nafarroa, Bizkaia eta Arabarekin ditugun harremanen garapen eta aldaketa ...

[FR]

Un festival estival se définit avant tout par son lieu, son environnement, le cadre qu'il offre aux festivaliers. Mais la dynamique créée s'inscrit aussi dans un territoire, ses politiques culturelles et son public.

Pour EHZ aussi, la question du territoire est à la fois centrale et transversale : le choix du lieu d'implantation, le rayonnement géographique à opérer, l'accessibilité... autant de questions passionnées dans un espace où la question territoriale est si vive (fracture côte/intérieur, reconnaissance institutionnelle, frontière mentale et stratégie de 'construction nationale'...).

Les questions d'implantation pourront être évoquées (la magie d'Arrosa, le pari Idauze Mendi, la formule Heleta...), ainsi que la relation avec les habitants, la mobilité des festivaliers, le choix d'un événement en milieu (semi) rural, le contexte de l'époque avec une jeunesse basque à mettre en réseau (côte/intérieur), l'évolution des relations avec Gipuzkoa, Nafarroa, Bizkaia et Araba...

3. Laguntzailea proiektuaren oinarrian // Le bénévole au cœur même du projet

[EUSKARAZ]

Medio bat baino gehiago, laguntzailegoa egiazko helburu bat da EHZrentzat sortu denetik. Ikusgarrigintza arloan aurrekonduak murrizten ari diren momentuan, eragile batzuk laguntzailegoa erabiltzen dute urrik den lan indarra lortzeko baina gehiengoarentzat gai hori ez da gogoeta nagusia.

Auzolanaren kultura asko zabaldua da Euskal Herrian eta EHZ hortan definitzen da osoki.

Ikertzen ahal diren azpi lemak :

- EHZ eskuragarria den militantearen formakuntza eskola
- Transmisioaren garrantzia : trebetasuna, Iparraldeko gazteriaren ontasun amankomuna.
- Laguntzaile izateko motibazio ezberdinak.

[FR]

Bien plus qu'un moyen, le bénévolat représente pour EHZ un véritable but depuis son lancement. Dans cette période de restrictions budgétaires pour le milieu événementiel, certains acteurs se tournent vers le bénévolat à la recherche d'une main d'œuvre gratuite, mais rares sont ceux qui appréhendent la question de façon aussi centrale.

La culture d'Auzolana (le travail coopératif) est très répandue en Euskal Herri, mais le modèle construit par EHZ dépasse même ce cadre.

Sous thèmes à explorer :

- EHZ école de la formation militante, facile d'accès.
- L'importance de la transmission : savoir-faire, EHZ : bien commun de la jeunesse d'Iparralde.
- Les différentes motivations pour être bénévole.

4. Historia garaikidea zeharkatzen // Un témoin de l'Histoire contemporaine

[EUSKARAZ]

Kasik mende laurden bat iragan da Pizturen sorkuntzatik 1992a eta festibalaren 20^o edizioa artean 2015an. Hainbat urte nun testuinguru lokal eta mundiala ainitz aldatu den.

EHZ historia alternatibo honen lekuko eta aktore izan da. Festibal ezberdinak garai bakoitzekin aintzinatu dira (borrokak, pentsamolde eta mugimendu ezberdinak, momentuko erronkak) eta EHZk parte hartu du bere maneran historia honetan.

Desmartxa historiko baten bidez, interesatuko gira hemen testuinguruaren inpaktuari eta azken hamarkaden bilakaerari :

- Esloganen, diskurtsoen, mezuen, kanpainen bilakaera (aniztasun kulturala, altermundializazioa, independentzia prozesua...).
- Elkarte dinamikak, plantan emandako praktikak...

Hori guzia gertakari ohargarriekin paraleloan eman beharko da (lan bat jadanik egina izan da gai honi buruz, eskatuz lor daitekena).

[FR]

Presque un quart de siècle s'est écoulé entre la création de Piztu en 1992 et la 20^{ème} édition du festival en 2015. Autant d'années où le contexte local et mondial a énormément évolué.

EHZ est à la fois témoin et acteur de cette histoire alternative. Les différents festivals se sont imprégnés de chaque période (les luttes, courants de pensée et enjeux du moment) et EHZ y a contribué à sa façon.

Par le biais d'une approche historique, on s'intéressera ici à l'impact du contexte et l'évolution des dernières décennies :

- Evolution des slogans, des discours, des messages, des campagnes (diversité culturelle, altermondialisation, processus d'indépendance...).
- Dynamique associative, pratiques mises en place...

Tout ceci sera à mettre en perspective avec les événements marquants (un travail a déjà été réalisé sur ce sujet, disponible sur demande).

5. Proiektuen bultzatzaile // Une rampe de lancement

[EUSKARAZ]

Askotan entzuten dugu festibalaren antolaketa ez dela helburu bakarra, baina gehiago tresna bat dela ; jendeak harremanetan jartzeko bide bat, beste oinarri batzuk lituzkeen gizarte baten eraikitzeko tresna, erakuslehiola izateko tresna, proiektuak laguntzeko tresna...

Bere historia guzian zehar, EHZk proiektu militante ainitzen agertzea edo indartzea lagundu du, forma ezberdinen bidez (laguntza logistikoa, diru laguntza, ikusgarritasuna, gaitasunak...)

Alternatibien egituraketan eta agertzean EHZren ekarpena agertaraziko da atal honetan : lagunduriko proiektuak, bultzaturiko dinamikak, sorturiko enpresak, sorturiko kanpainak, Sorgin/Artean/EhrZ programak...

[FR]

On entend souvent que l'organisation du festival n'est pas un but en soi, que c'est davantage un moyen ; moyen de mettre les gens en relation, moyen pour construire une société sur d'autres bases, moyens pour être une vitrine, moyen pour accompagner des projets...

Tout au long de son histoire, EHZ a contribué à l'émergence ou au renforcement de nombreux projets militants et ce, sous différentes formes (aide logistique, financière, visibilité, compétences...).

C'est donc sous l'angle de la contribution d'EHZ à la structuration et l'émergence d'alternatives que sera construit ce volet : les projets soutenus, les dynamiques impulsées, les entreprises créées, les campagnes initiées, les programmes Sorgin/Artean/ EhrZ...

6. Zein toki kulturarentzat ? // Et la culture dans tout ça ?

[EUSKARAZ]

...

Proiektuaren izaera engaiatu eta militantea ikusirik, kasik ahantziko ginuke EHZ aktore kulturala dela ere, sustatu nahi duen ereduaren ikuspegi propio batekin.

Paraleloan, kulturaren eta berezikiago gaur egungo musiken sektorea azkarki kanbiatzen ari da, Europa guzian bezala : nahasmendu soziala, podere publikoen gibel egitea, marka handiek sortzen duten merkatal jabetzea, naming, sponsoring eta mezenasgoa, josteta industriaren garapena, diskoaren krisia...

Nola EHZk honi aurre egiten du ? Zein dira bere hautu artistikoak ? Zer oreka lokal eta nazioartekoaren artean ?

[FR]

Compte tenu de la nature engagée et militante du projet, on en oublierait presque qu'EHZ est aussi un acteur culturel avec une vision propre du modèle qu'il souhaite promouvoir.

En parallèle, le milieu de la culture et celui des musiques actuelles plus particulièrement est en profonde mutations dans toute l'Europe : bouleversement social, désengagement des pouvoirs publics, appropriation commerciale de la part de grandes marques, naming, sponsoring et mécénat, développement d'une industrie du divertissement, crise du disque...

Comment EHZ y fait face ? Quels sont ses choix artistiques? Quel équilibre entre locaux et internationaux?